## Adimen-gaitasun handiko ikasleei hezkuntza-erantzun inklusiboa emateko egindako hautemate eta identifikazio prozesuaren aplikazio pilotoa derrigorrezko hezkuntzan

**Miryam Martínez Izaguirre**
**Deustuko Unibertsitatea - Hezkuntza eta Kirol Fakultatea**

## Dislexia eta AGH

**DISLEXIA-ADIERAZLEAK. Arazoak:**

- irakurketa, idazketa eta ortografia.
- Antolaketa, epe laburreko memoria, kalkulua.
- Norabidea, ulermena, kontzentrazioa.

**NORTASUNA: GAITASUN HANDIAK ETA DISLEXIA**

- Sentikorrak eta haien zailtasunen jakitun.
- Norberaren gaitasunen eta idatzizko produkzioen arteko aldea
- Ezkorrak, perfekzionistak edo oso autokritikoak.
- Egiaren eta justiziaren zentzua
- Helduen konpainia nahiago izatea

**DEFENTSA-MEKANISMOAK:**

- asperdura adierazten dute
- irakasleak edo eskola kritikatzen dituzte
- ikasgelako pailazo bihurtzen dira
- zailak iruditzen zaizkien lanak modu sortzailean saihesten dituzte
- eroso sentitzen diren gaiengana desbideratzen dira
- ahulak diren eremuetan jarduteari uko egin diezaiokete. Eta muturreko kasuetan, erabat aldentzen dira.

**IKASGELAN NABARMENDU ETA IKUS DAITEZKEEN EZAUGARRIAK:**

- ahozko adierazpenerako gaitasun handia
- komunikazio-gaitasun bikaina
- Hiztegi aberatsa
- goi-mailako errendimendua gelako eztabaidetan
- umore sofistikatua
- Arazoak konpontzea eskatzen dituzten atazetara ondo moldatzen dira
- Sarritan, sormenezko konponbideekin harritzen dute irakaslea.

Bideoa

(Scottish Network for Able Pupils, 2009)

## GAITASUN HANDIKO IKASLEEN ESKOLAKO ERRENDIMENDUA

## GAITASUN HANDIKO IKASLEEN ESKOLAKO ERRENDIMENDUA

- Gaitasun orokorreko **testetan puntuazio altuak aurkezteak ez du zertan esan behar beti lorpen akademiko onak egongo direnik,** edo ikasgelan ikasteko prozesuan parte hartuko dutenik edo inplikatuko direnik.
- AHG duten ikasleen **errendimendu baxuak espero den lorpenaren** (gaitasun kognitiboaren inguruko probetan eta errendimendu probetan frogatutako gaitasunetik eratorritakoa) **eta errealitatean lortutakoaren** (errendimendu akademikoa) **arteko desadostasuna** aipatzen du.

(Tan, Kian Tan y Surendran, 2019)

## GAITASUN HANDIKO IKASLEEN ESKOLAKO ERRENDIMENDUA

**1go Profila. ARRAKASTATSUAK**
- **Erraz identifikatzen** dira ikastetxeetan, **errendimendu akademikoa, portaera eta autokontzeptu ona** erakusten baitute.

**II. PROFILA. ALDATZAILEAK EDO DIBERGENTEAK**
- **Sormen maila altua** erakusten dute, **umore ironikoa, irakaslearen autoritatea zalantzan jartzen** dute eta jarrera **disruptiboak** aurkezten dituzte. Ekintza horiek **autokontzeptu baxuarekin** batera, **zaurgarria** eta **zaila da irakasleek antzematea**, prestakuntza ona ez badute behintzat.

**III. PROFILA UNDERGROUND**
- Kideengandik **onartuak izan daitezen,** beren **gaitasuna inhibitzen dute eta beren ahalmenen azpitik** aritzen dira. **Segurtasun eza eta haien gaitasuna aitortzeko beldur dira.** Profil honetan **emakumezko ugari** dago.

(Betts y Neihart, 1988)

## Emakumea eta gaitasun handiak

- **Historian erreferente eskazak**: bere gaitasuna gutxietsita egon da, emakume gutxi eskolako testuetan.
- **Genero-identitatea eraikitzeko prozesuak eragina du hezkuntza- eta lan-ibilbidean.**
- **Oztopo sozialak**:
  - **Kristalezko sabaia** (idatzi gabeko arauak, goi-zuzendaritzarako sarbidea zailtzen dutenak)
  - **Lurzoru itsaskorra** (estereotipoak eta genero-rolak barneratzea)
- **Oztopoak garapenean** (Kerr, 1997; Reis, 2000):
  - Arrakasta **lortzeko zailtasunak.**
  - **Arrakastarako beldurra** eta **gaitasunak ezkutatzea.**
  - **Perfekzionismo handia.**

- **Haur Hezkuntzan:** gaitasun handia mutilek baino lehenago adierazten dute.
- **DBH-ren hasieran:** errendimendu handia eta mutilen antzeko curriculum-interesak dituzte.
- **DBH - Batxillergo:**
  - Adimena eta talentua **vs.** arrakasta eta feminitatea.
  - **Zaila** da nerabezaroan **gaitasuna eta generoa bateratzen** ikastea.
  - Beren gaitasunagatik **gelakideek baztertzeko beldur dira**.
  - **Onartuak izateko** beren **lorpenak sakrifikatzen** dituzte, eta **oharkabean pasatu** nahi dute.
- **Goi-mailako hezkuntza:** errendimendu handia dute, baina eurengan konfiantza galtzen dute. Etorkizuneko helburuak eta planak murrizten dituzte.
  - ***Iruzurgilearen sindromea:*** adimen-faltsutzearen pertzepzioa (autoestimu txikia, larritasuna, kanpoko arrazoiei egotzitako arrakasta, engainu-sentsazioa).
  - ***Erle erreginaren sindromea*** (Pérez, 2002): arrakasta lanean, bikote eta ama moduan. Nekatuta, bere buruari errua botatzen dio lanean eta familian behar adina ez egiteagatik.

(Trillo, 2012)

## GAITASUN HANDIKO IKASLEEN ESKOLAKO ERRENDIMENDUA

**IV. PROFILA HASERREAK**

- **Irakasleek baztertuta, beraien beharrei erantzuten ez dutela somatzen dute, alferrak, desinteresatuak, despistatuak, aspergarriak edo karganteak** direla uste ondoren. Errealitate horrek **autokontzeptu baxua eta errendimendu baxua** erakustera eramaten ditu ikasle hauek.

**V. PROFILA: BIRRITAN IDENTIFIKATUAK**

- **Dohaintasunaz gain, nolabaiteko desgaitasun edo ikasteko zailtasuna dute.** Horrek bere **detekzioa zailtzen du eta autokontzeptu baxua** sortzen du**.** Zailtasunarekiko arreta jasotzen dute, ez gaitasun handiarekiko**.**

**VI. PROFILA. AUTONOMOAK**

- **Familian identifikatutako ikasleak, hezkuntza sistemara modu positiboan egokitzeko gai** direnak. Bertan bere kezka eta interesen **erantzuna aurkitzen dute**. **Autokontzeptu ona** dute, **komunikaziorako trebetasunak** dituzte, eta **lidergoa izan dezakete** ikaskideen artean.

(Betts y Neihart, 1988)

## AGH duten ikasleen eskola-errendimendua

"**Muchos de los desajustes emocionales y sociales** que a veces observamos en este alumnado **tienen su origen en la falta de reto y de un entorno educativo estimulante desde edades tempranas**. Esta falta de reto **limita el desarrollo de sus fortalezas internas** y, en consecuencia, **su capacidad para obtener logros, impactando nuevamente en su autoestima y desarrollo emocional**." (Tourón, 2019).

## *Ba al da errendimendu altua gaitasun handiko ikasleen ezaugarria?*

Gaitasun handiak **lorpen handiak ekar ditzake,** baina **kasu askotan ez dira dohain bereziak ikusten ikastetxean**. Kasu horiek, "**berandu loratu" arren**, helduaroan **aparteko lorpenak aurkeztu ahal dituzte** (Pfeiffer, 2012).

**Esku-hartze egokia behar dute eta hori izateko eskubidea dute.**

## ERRENDIMENDU BAXUA

**"Ikasten da**" urtez urte. Izan ere, **gaitasun kognitiboaren eta jasotako hezkuntza-proposamenaren arteko aldearen ondoriozko asperdurak eskola-interesik eza, komunikazio-eza, urruntzea edo indarkeria eragiten ditu** (Delisle & Galbraith, 2002).

Eskola mailan proposatutako ikaskuntzan **zailtasunak ez aurkitzeak ez du eskatzen** ikasleek **autorregulaziorako** ikaskuntza **estrategiak garatzea**. Beraz, **ikasturteak aurrera** egin ahala, ikasleek **ez dituzte ikaskuntza estrategiak garatu** hezkuntza **jarduerei behar bezala aurre egiteko.**

## AGH duten ikasleen eskola-errendimendua

Zer dago errendimentu baxuaren atzetik?

- Deprezioa
- Antsietatea
- Perfekzionismoa
- Autoestimu baxua
- Estrategia desegokiak
- Giza heldutasun falta
- Aurkitu ez diren ikasteko defizitak

Ikaskuntza eta autoerregulazioa oztopatzen dituzte

Bigarren Hezkuntzan:

- Autoefikazia maila baxua
- Lorpen itxaropen baxuak
- Erregulazio falta (Ritchotte, Matthews, y Flowers, 2014).

(Tan, Kian Tan y Surendran, 2019)

## AGH duten ikasleen eskola-errendimendua

- Topatutako gainontzeko aldagaiak:

**Garapen motor fina garapen kognitiboaren atzetik, honen iragarle argia**

- **Errendimendu eta iraunkortasun puntuazio txikiagoak** (Stoeger y Ziegler, 2012; Stoeger, Ziegler, y Martzog, 2008).
- **Errendimendu baxua matematiketan,** arlo honetan **oso gaitasun handia izan arren**(Ziegler y Stoeger, 2010)
- Kasu hauetarako e**skoletako kalifikazioak ez dira iragarle onak** (Staudt y Neubauer, 2006)

(Tan, Kian Tan y Surendran, 2019)

## Arrakasta lortzeko oztopoak

- Hezkuntza-maila baxua eta/edo familiaren konpromiso eza.
- Irakasleek eta/edo familiek eragindako Pigmalion efektu negatiboa.
- Hezkuntza programa osagarrietarako sarbiderik ez izatea.
- Hezkuntza-sistemak eskainitako erantzun eskasa.
- Irakasleen prestakuntza eskasa AGH-en inguruan edo ikasle horienganako itxaropen txikia.
- Jatorri soziokultural edo ama-hizkuntza desberdina.
- Kideen eragina edo jarrera negatiboak.
- Goi mailako hezkuntza jasotzeko aukera falta edo ezjakintasuna (motibazioagatik edo pobreziagatik).

(Sastre-Riba, 2014)

**AHG + ERRENDIMENDUAN OINARRITUTAKO DETEKZIOA ETA ESKU-HARTZEA EZ DA ERAGINKORRA EZTA EKITATIBOA ERE**




**Esku-hartzea EZ** da bideratu behar **SOILIK errendimendu altua adierazten dutenentzat.**

**Erronka maila handitzen, haien ikasteko estilora egokitzen, indarguneak eta ahulguneak jorratzen oinarritzen den esku-hartzeak,** hauxe hobetzen du: errendimendua, ongizate emozionala, autokontzeptua eta harreman sozialak.

*Todos somos genios. Pero si juzgas a un pez por su habilidad para trepar a los árboles, vivirá toda la vida pensando que es inútil*

Albert Einstein

Deusto
Facultad de Educación y Deporte
Hezkuntza eta Kirol Fakultatea
Faculty of Education and Sport

Adimen-gaitasun handien garapena eta kristalizazioa.

a. Garapen-ibilbideak

b. Gaitasun handiaren adierazpena baldintzatzen duten faktoreak

Deusto
Facultad de Educación y Deporte
Hezkuntza eta Kirol Fakultatea
Faculty of Education and Sport

## Kontuan hartzeko

**Identifikazio goiztiarrak** talentu sinple, konplexu, konglomeratu eta superdotazioko **profil intelektual batera hurbiltzen gaitu**.

Profil intelektuala **garapen-prozesu bati lotuta** dago.

Hala ere, **profil intelektuala konfirmatu** ahal izango da **garunaren heltzea amaitu ostean** (12 urte inguru).

Deusto
Facultad de Educación y Deporte
Hezkuntza eta Kirol Fakultatea
Faculty of Education and Sport

**GARAPEN IBILBIDEAK**

Deusto

**AGH-aren GARAPEN PROZESUA**

Oinarri fisikoak

Garunaren heltzea

**hedapen genetikoa** eta interakzio biokimikoak ematen dira, **ingurunearen eraginaren ondorioz:** inausketa neurala eta garun-eremuen erabilera)

Egituraren kristalizazioa

Garunaren egitura egonkorra:

- Ez dago egiturazko aldaketarik, baina funtzionalak bai.

Jaiotza

10-14 urte

(Sastre-Riba y Castelló)

**GENETIKAK** beharrezko lehengaia ematen du eta sareak automatikoki eraikitzen ditu.

**INGURUAK** sareen erabilgarritasuna eta erabilera baldintzatzen ditu.



K**RISTALIZAZIO ESTRUKTURALA (garapen estrukturala):** izan daitezkeen loturak eta sareak garatzen dira, bultzada genetikoen eta kanpoko egoeren bidez (biokimikoak, estimulazioa). Kode genetiko batetik eratorrita, erabilera egoki baterako prest daude.

**KRISTALIZAZIO FUNTZIONALA (garapen kognitiboa): sareak egoteak ez du bermatzen erabiliko direnik edo behar bezala erabiliko direnik. Ingurunearen eta eskariaren arabera.**

## ADIMEN GAITASUN HANDIAREN ADIERAZPENA: FAKTORE BALDINTZATZAILEAK

## Adimen-gaitasun handiak adierazteko baldintzak




## Ezaugarri pertsonalak

| GAITASUN HANDIA BEHAR DA, baina horretaz aparte: | |
|---|---|
| **MOTIBAZIOA eta PERTSEBERANTZIA**<br>• **Motor nagusia** edo **eminentzia lortzeko balazta** helduaroan.<br>• Helduaroan eminenteak direnak: motibazio eta pertseberantzia maila handia adierazten dute. | **NORTASUNA**<br>**Ez dago eredu bakarra**, baina **ohiko ezaugarriak** bai, adibidez:<br>• errealitatearen **kontzientzia handiagoa, sentiberatasuna, sentsibilitatea eta irudimena.**<br>• **Ahalegin handia** eta **autodiziplina.**<br>• Haurtzaro **zoriontsua**<br>• **Lan autonomoaren alde**ko lehentasuna<br>• **Coping** (pertsona baten gaitasunak gainditzen omen dituzten arazoei aurre egiteko gaitasuna) eta **estresaren kudeaketa.**<br>• **Ez datoz bat konbentzionalismoekin**, beti onartu denarekin edo ondo ikusita dauden aspektuekin. |

Video

## Familia

- **Familiaren lana**, bereziki gurasoena, **kritikoa** da **talentua garatzeko** (Olszewski-kubilius, 2019).
- **Ikasteko esperientziak eta aukerak** eskaintzen dituzte. **Ez** kasu guztietan (**egoera ahuletan**).
- Garrantzitsua da babesa ematen.
- Estresa **biziagotu edo arindu** dezake.

- (**Pigmalion eragin negatiboa izan dezakete seme-alaben gaitasunak ezagutzen ez badituzte**. Haien ekintzak gaizki interpreta daitezke (Adibidez: entretenitu egiten zara, ez dituzu lanak amaitzen – hau da, alferra zara, ez duzu irakasleak esandakoa kontuan hartzen – hau da, errespetugabea zara. Batzuetan bakarrik zaude – hau da, ez dakizu lagunak egiten…).
- Familiak **coping-aren alde egin dezake**, bere gaitasun handia **ulertuz** eta bere **itxaropenak egokituz**, eta **erronkei** aurre egiteko aukera emanez.

## Familia

- **Klase ertain-altuek maizago identifikatzen dituzte** seme-alabak AGHak aurkezten dutenean (gaitasuna nabarmenagoa da).
- **Hezkuntza-estilo AUTORITATIBOAK (aberasgarria baina zorrotza - kontrola, diziplina eta autoritatea),** AUTORITARIOAREKIN EZ DUGUNA NAHASTU BEHAR, **korrelazio positiboa du AGHko haurren osasun mentalarekin, zoriontasunarekin eta garapenarekin** (Bloom, 1985; Olszewski-Kubilius, 2008).
- **Familiak hobetzeko jarrera** eta **kulturarekiko interesa** izatea **aberasgarria da**.
- **Hezkuntzari emandako garrantzia, arrakastarako itxaropen**ek eta seme-alaben **gaitasunaren balorazioak eragin** nabarmena dute haien **ongizatean eta arrakastan**.
- **Egonkortasuna eta** ematen zaien **maitasuna funtsezkoak dira estresari** eta **ingurunera egokitzeko** egin behar duten etengabeko **ahaleginari aurre egiteko**.

## Familia

Zer topatu dute ikerketek?
IDENTIFIKAZIOAK FAMILIAREN ERAGIN POSITIBOA SORTZEN DUELA, eta oro har, hauek **hezkuntza autoritatiboa** aurkezten dutela (Olszewski-kubilius, 2019):

- **Komunikazio irekia eta arrazoitua**, baina **itxaropen handiak**, **diziplina** justua eta koherentea.
- **Garapen kognitibo handiagoa** sortzen du (Rudasill, Adelson, Callahan, Houlihan eta Keizer, 2013), **trebetasun sozial hobeak** eta gaitasun sozial handiagoa (Olszewski-Kubilius, Lee eta Thomson, 2014).
- **Perfekzionismo osasuntsurantz gidatzen** dute (**ikaskuntzari begira** (Speirs Neumeister, 2014). **Ez dira notetan zentratzen**, umeen ikaskuntzan eta garapenean baizik.
- **Kohesio emozionala** eta **lotura afektibo sendoak** dituzte.
- Nerabeek, beren **familia, arauak dituen eta antolatuta dagoen lekua dela** ikusten dute.
- **Eredu gisa** jarduten dute **beren bizi-ibilbideekin.**
- Seme-alabek dituzten **dohainak baina zailtasunak ere identifikatzen** dituzte.
- **Gogor egiten dute haien alde eskolan, laguntza eta zerbitzu bila**.

- Estilo kaotikoak, liberalak eta **laissez-fairean oinarrituak, errendimendu baxua eragin dezakete**.
- Estilo **autoritarioek**, perfekzionismo disfuntzionala, antsietatea eta autoestima baxua eragin dezakete.

## Eskola

- Ikasleen **potentziala garatzeko eta garapen soziala bideratzeko aukera handiak** dituen erakundea da.
- Gaitasun handiak **detektatzeko eta** hauek **kristalizaziorantz estimulatzeko leku egokia** da.
- **AGH-ko ikasleek interakzioa eta hauetan barneratuta izatea** bilatzen dute .
- Renzulliren arabera (2012), **curriculum arruntetan** proposatzen denaren **%40a ez dute behar**.
- Beren **hezkuntza pertsonalizatzen ez bada, oztopo bihur daiteke, eta ondorio ohikoenak** hauek dira: **motibazio falta, autokontzeptu arazoak,** baita **eskola uztea** ere**. Ez dira AGH-ko pertsonen ezaugarriak, erreakzioak baizik.**

ONDORIOAK: **esku hartzea antolatzeko honako hau ematea exijitzen badugu: potentzial handia + motibazioa + sormena** (ongizate egoeretan adierazten dena), **ikasle asko galduko ditugu bidean, eta euren arrakasta-aukerak (pertsonala, soziala eta akademikoa) nabarmen murriztuko ditugu.**

## Eskola

- **Zer gertatzen da…?**

**Curriculuma moldatzen ez denean?**

- Frustrazioa, antsietatea, perfekzionismo disfuntzionala, autokontzeptu baxua, errendimendu baxua edo produkzio eskasa.

**Gelako lanak erronkarik ez duenean edo errepikakorra denean?**

- Motibazioa galtzea, kontzentratzeko zailtasuna, lanean eta entregatutako produktuetan arreta falta, ikasteko interes falta, jarrera disruptiboak.

**Antzeko gaitasuna duten ikasleekin lan egiten ez dutenean?**

- Autokontzeptu sozial baxua, autoestimu baxua, ongizate pertsonalaren desoreka.

## Baldintza sozialak

- **Kulturak bultzatzen diren talentuetan eragina du**. Futboleko harrobiak (Brasil), Ekialdeko Europan gimnastak, Erdialdeko Europan musika-talentuak, ekintzaileak (sortzaileak) Estatu Batuetan.
- Gaitasun handiko ikasleen **testuinguru sozialean baloratutakoaren arabera, beren talentua garatzeko aukera gehiago edo gutxiago izango dituzte, eta gehiago edo gutxiago baloratuko dira.**
- J**aiotza-ordenak arrakastaren inguruan duen eragina, une sozialaren arabera.**
  - Lehenseme-alabak arrakastatsuagoak dira gatazka-garaian, gerran, zailtasunetan...;
  - Ertainak bake-garaian, elkarrizketa- eta ulermen beharra dagoenean negoziazio-garaian,
  - Eta txikiak errebindikazio eta iraultza-uneetan, ezarritako arauak hausteko orduan.
- **Zortea:**
  - **Zoriak** eragindakoa**.**
  - **Intentsitatez bilatua.** Prestakuntza bizia, une egokia aprobetxatzeko**.**



## Ibilbidearen balioa

- **Kristalizazioa**, garuneko arkitektura onaren menpe ez ezik, **jarraitutako ibilbidearen menpe egongo da**. Ibilbide on batek:
  - **Ikaskuntzen erritmoak eta sakontasuna errespetatzen ditu**.
  - **Esperientzia onak** eskaintzen ditu (egindako jardueren kopurua ez da esanguratsua**, kalitatea eta sakontasuna baizik**).
  - **Zerbait egiten emandako denbora ez da esperientzia**, eta are gutxiago **bikaintasuna**. Urte askoan zerbait gaizki egin daiteke.
  - **Bikaintasuneko erreferenteak funtsezkoak dira** (**familian** edo **ikastetxetik kontaktua** bultzatzen denean). Gidatzen eta Feed-back-a eskaintzen duen **mentoretza funtsezkoa** da.

# Bikaintasunaren adibide batzuen ibilbideen azterketa



| MARIE CURIE – Bikaintasuna kimikaren arloan | |
|---|---|
| **EZAUGARRI PERTSONALAK** | - **Coping – Zentzurik gabeko** eta **inposatutako** edozein **arauren aurka**<br>- **Motibazioa** eta **pertseberantzia – Espiritualtasun** handia |
| **FAMILIA TESTUINGUA** | - **Ekonomikoki gutxietsia** baina **oso kultua (zientzia eta musikarekin harremana)**<br>- Kohesio handia, **ulermen eta laguntza emozionala. Balioak eta adibideak.**<br>- **Aita mentore** moduan aritzen da **(irakaslea). Senarraren laguntza.** |
| **ESKOLA TESTUINGUA** | - **Eskola-eskakizunak gainditzen** ditu.<br>- Hala ere, **eskola-metodologiari erantzungo zion:** "Eta eskola? A, eskola! "Batzuetan iruditzen zait hobe litzatekeela haurrak itotzea gaur egungo eskoletan sartzea baino". |
| **GOI MAILAKO IKASKUNTZAK** | - Baliabiderik gabe, ahalegin handiak eginez unibertsitateko **aukera bilatzen du.** Bi karrera ikastea eta doktoretza egitea lortzen du. |
| **TESTUINGURU SOZIALA** | - **Bere esparrua** baloratzen du, baina **ez emakumeentzat**.<br>- **KRISTALEZKO SABAIA HAUSTEN DU ahalegin handiarekin** (alabak etxean hezten ditu, arropa josi egiten die…) |



| STEVE JOBS – Elektronikaren eta teknologiaren alorreko bikaintasuna | |
|---|---|
| **EZAUGARRI PERTSONALAK** | • **Motibazio eta sormen handia bere intereseko arloetan.**<br>• Pertseberantzia maila handia, frustrazioarekiko tolerantzia, erresilientzia eta coping-a. |
| **FAMILIA TESTUINGUA** | • Armeniar jatorriko **familia etorkin batek adoptatua. Baliabide** ekonomiko **gutxi.**<br>• **Laguntza emozionala familian eta haren intereseko arloetan: elektronika.**<br>• **Garapen espirituala.** |
| **ESKOLA TESTUINGUA** | • **Eskolako ibilbide konplexua.**<br>• **IRAKASLEAk (ikusi eta sinetsi egin zuen).** "*Beste irakasle batengandik baino gehiago ikasi nuen, eta **emakume horrengatik izan ez balitz**, ziur nago kartzelan amaituko nuela*"… "***Berak zerbait ikusi zuen nigan***"<br>• **MENTORETZA (Hewlet Packard**-en, 12 urtetik aurrera). |
| **GOI MAILAKO IKASKUNTZAK** | • Nahiz eta **zailtasun ekonomikoen** ondorioz **unibertsitatetik desmatrikulatu** behar izan, **ikasteko motibazioari eusten** dio eta unibertsitatean **entzule moduan jarraitzen du.** |
| **TESTUINGURU SOZIALA** | • Mountain View-en **hazten da – industria elektronikoaren epizentroan**. |

# TRESNAREN APLIKAZIOA

BEHAKETA

↓

DETEKZIOA

